

Balio proposamena

Proiektu bat egin behar genuela jakin eta, ezer ere ez pentsatuta izan aurretik, bazen gauza bat argi genuena, zera dena: aurrera eramango genuen proiektuak lagungarria izan behar du gizakiarentzat; haren egunerokoan baliagarria jazoko zaion baliabide bat sortu nahi dugu.

Pertsiana garbitzaileen ideia izan eta ez genuen bi aldiz pentsatu, hauei esker leihoak garbi mantentzea askozaz ere errazagoa baita, baliabide honen bitartez, kontsumitzaileak ez baitu esfortzurik egin beharko haren leihoak txukun mantentzeko, pertsianak berak garbiketa automatikoa egiten baitu, etxeko lan bat gutxiago izango delarik modu honetara, leihoen garbitasunaren gaineko larritasunak alde batera utziz.

Honekin adierazi nahi duguna da, etxe batean, pertsianak, etxeko beste elementu garrantzitsurekin batera, zikindu egiten dira, leihoen antzera. Honek, pertsonari lan bat suposatzen dio, hauek garbitu behar baititu. Eta esan genezake, ez dela lan malgua haxe; adineko jendea esaterako, ez baita gai izaten leihoak garbitzeko, honek duen arriskua dela eta.

Besteengandik bereizten gara, proiektu honen berritasunarengatik, erabil erraztasunarengatik eta lana (leihoak garbitzea) asko errazteagatik. Ezin daiteke ukatu baliagarria ez denik ezta aurrerakuntza teknologiko erabilgarri ez denik ere.